



Gobernu korporatibo egokirako politika orokorra

2024ko uztaila





Dokumentu hau irisgarritasun-irizpideen arabera diseinatu da, eta bereziki dago baliabide digitalen bidez bistaratzeko pentsatuta.



Mutualia, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko mutua

Henao kalea 26,

48009 Bilbo

Telefono-zenbakia: 94 4252500

www.mutualia.eus

Informazio gehiagorako, *posta elektroniko* bidez jar zaitezke gurekin harremanetan: dircom@mutualia.es

Aurkibidea:

1.- SARRERA	4
2. XEDEA ETA ADIERAZPENAK	4
3.-APLIKAZIO-ESPARRUA	5
4.-PRINTZIPIO OROKORRAK	5
5.- GOBERNU- ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK	8
1. - Batzar Orokorra	
2. - Zuzendaritza Batzordea eta hartako batzordeak	8
2.1.- Zuzendaritza Batzordea	
2.1.1.- Zuzendaritza Batzordeko batzordeak	9
2.1.2.-Batzar Orokorraren eta hartako batzordeen bilera	9
2.1.3.-Zuzendaritza Batzordeko karguak	10
2.2. Zuzendaritza Batzordeko batzordeak	12
2.3.- Zuzendari kudeatzailea	13
2.4.- Kontrol eta Jarraipen Batzordea	13
2.5.- Prestazio Berezien Batzordea	14
2.6.- Bileretara joateagatiko konpentsazioa	14
2.7.- Kontrapisuen sistemak	15
6.-GARAPENA	16
7.-EZAGUTARAZTEA	16
8.- POLITIKA ETA BARNE-ARAU KORPORATIBOEN SISTEMATIKA ETA ONESPENA	16
9.-KONTROLA	16
10.- ONESPEN-ETA BERRIKUSPEN-TAULAK	17
11. ERASKINA	18

1. SARRERA

Mutualia Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko Mutuaren (aurrerantzean, Mutualia, erakundea/erakunde hau edo mutua hau) Zuzendaritza Batzordeak eskumena du mutuak hobeto funtziona dezan beharrezkoak diren xedapenak hartzeko (Estatutuen 23.i artikulua); besteak beste, ZINTZOTASUN ETA GOBERNU KORPORATIBO EGOKIRAKO Sistema (aurrerantzean, Gobernantza) onetsi, ebaluatu eta etengabe berrikusteko eskumena, eta, bereziki, politika korporatiboak onestekoa, zeinek biltzen baitituzte Mutualiak bere jarduerak garatzean dituen jarraibideak.

Ardura horiek gauzatzean, eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzekoa zaien araudiaren eta mutuaren estatutuen, xedearen, kode etikoaren, misioaren eta balioen esparruan, Zuzendaritza Batzordeak gobernu korporatiboaren politika orokor hau ("politika") onesten du.

2. XEDEA ETA ADIERAZPENAK

Politika honen helburua Mutualiaren gobernantza egokirako estrategia eta konpromiso orokorrak ezartzea da, oinarri hartuta bere balioak aplikatzea eta Mutualiari egokitutako onarpen orokorreko gobernu egokirako gomendioak betetzea, baita, oro har, erakunde horren izaera juridikoak legez eska ditzakeenak ere.

Mutualiaren nahia da bere gobernu- eta partaidetza-organoek, beren eskumenak, zereginak eta ardurak garatzean eta interes-taldeekiko harremanetan, gobernu korporatiboaren politika orokor honetan ezarritakoa errespetatzea eta betetzea.

Mutualiak konpromiso esplizitua adierazten du gobernu egokiaren eta gardentasunaren arloko printzipio, gomendio eta arauak zaintzeari dagokionez, eta, beraz, printzipio, gomendio eta arau horiek estatutuetan jasota dagoen Gobernu eta Partaidetza Organoen egituraren ezarritako legezkotasunaren eta mutuari aplikatu beharreko legeetara egokitzeko, bai eta mutuak printzipio orokor gisa definitutako etika eta balioak ere.

Illo horretan, sustatuko da interes-taldeek eta gobernu- eta partaidetza-organoek erakundearen jardura ezagut dezaten zehatz eta osoki, organo bakoitzari dagozkion erabakien esparruan informazioa, sarbidea eta partaidetza bermatzeko, kasu bakoitzean ezarritako estatutuetan xedatutako eskumenen eta arduren arabera.

Gainera, Mutualiak ezarria du Informaziorako Barne Sistema, bat etorriz otsailaren 20ko 2/2023 Legearekin, zeinak arautzen baitu arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa.

Halaber, Mutualiak konpromisoa du kontuak emateari eta informazio eta jardun gardenari dagokionez, bere interes-taldeen beharrei eta espektatibei erantzuten dien komunikazio-eredu fidel batean oinarrituta. Horren harira, kontuak emateari dagokionez, Mutualiak bere Jasangarritasun Memoria eta Gobernu Korporatiboari buruzko Urteko Txostena jasotzen ditu, baita bere interes-taldeekiko harremanari eta haiekin hartutako konpromisoen emaitzei dagokienez ere, Global Report Initiative (GRI) estandarraren arabera.

Bestalde, Finantza Inbertsioen politikan, irabazi-asmorik gabeko erakundeen Jokabide Kodearen printzipioak eta gomendioak betetzen dituen urteko txostena aurkeztu da, Balore Merkatuaren esparruko aldi baterako finantzainbertsioetarako.

Gainera, eta herritarren, mutualisten eta interesdunen gardentasun, informazio publiko eta gobernu egokirako eskubideari erantzute aldera, Mutualiak Gardentasun Ataria du, hots, gure interes-taldeei arreta ematea ahalbidetzen digun mekanismoa. Horren bitartez, legez derrigortuta dagoen informazio guztia eskaintzen du, baita mutuaren errealitatea jarduera proaktibo baten bidez ezagutzeko baliagarria izan daitekeen bestelako informazioa ere. Horren bitartez, interesdunek informazioa eskuratzeko eskaerak kudeatu ahalko dituzte, gardentasunaren arloan.

3. APLIKAZIO-ESPARRUA

Politika hau Mutualiaren gobernu- eta partaidetza-organo guztiei aplikatzekoa da.

4. PRINTZIPIO OROKORRAK

Mutualiaren gobernu eta partaidetza-organoek, interes-taldeekiko harremanetan, koherentzia bermatu behar dute eta eredugarri izan behar dute, definitutako balioen adibideari eta pertsonifikazioari dagokienez. Horretarako, sakontzeko asmorik gabe, honako printzipio hauek definitzen dira:

Hurbiltasuna:

- Elkartutako enpresa guztiei, langile babestuei eta atxikiei berdintasunezko tratua bermatzea, haien estatusa edozein dela ere, haiekiko interesa eta arreta funtsezko ardatz izanik.
- Informazioa formatu eta hizkuntza irisgarrian, guztientzat egoki eta errazean zabaltzea, baldintza fisiko, psikiko eta sozial guztietara egokituta, mezua ulargarria izan dadin, eta emandako mezua ulertu dela egiaztatzea.
- Irisgarritasun fisikoa ahalbidetzea eta barrera arkitektonikoak desagerraraztea antolatzen diren ekitaldi guztietan, haietarako garraioa ahal den heinean erraztuz.
- Erakunde eta pertsona mutualistekiko komunikazioa beren ama-hizkuntzan edo komunikazio-hizkuntzan gerta dadin erraztea, eta Mutualiak lan egiten duen lurraldeetako hizkuntza ofizialak erabiltzea lehenestea.
- Mutua zer den gizarteari modu egokian ezagutaraztea eta informatzea.

Eraginkortasuna:

- Iruzur- edo ustelkeria-jokabideak baztertzea eta inolaz ere ez aplikatzea, baldin eta gizarte osoak jasaten dituen ondasun publikoen erabilera desegokia badakarte.
- Mutuaren eta/edo Gizarte Segurantzaren interes publikoa edo ondarea arriskuan jar dezakeen edozein ekintza saihestea.
- Kudeaketan borondatez, aktiboki eta erabakitasunez integratzea ekonomia-, gizarte- eta ingurumenkezkak, legezko betebeharretatik eta Gizarte Segurantzaren erakunde laguntzailearen izaeratik haratago, irabazi-asmorik gabe.

Taldea:

- Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen baterako kudeaketa-metodoak lehenestea, erakunde arteko eta sektoreko erantzunkidetasunari bide emateko eta hori aditzera emateko.
- Adostasuna eta eztabaida leialak bilatzea kide anitzeko organoen erabakietan.

Profesionaltasuna: :

- Isilpekotzat jotzen diren gertakarien eta eskuratutako informazioaren gaineko isilpekotasuna gordetzea, baita datu pertsonalen babesa eta gobernu eta partaidetzako kide anitzeko organoen eztabaidei buruzkoa ere, eta dagozkien helburuetarako erabiltzea soilik.
- Indarreko araudiak esleitzen dizkien zereginak betetzea, eman ziren xederako bakarrik, eta beren zereginak behar bezala eta zintzotasunez betetzea.
- Interes-taldeekin harreman egokiak izateko eta gainerako zereginak behar bezala betetzeko behar diren gaitasun eta ezagupenetan aurrera egitea.
- Inpartzialtasun-printzipioa errespetatzea, interes-gatazkarik gabeko irizpide independentea izan dezaten, legezko bateraezintasun eta debekuak errespetatuz.


Gardentasuna:

- Enpresa elkartuei eta langile babestu eta atxikiei ez ezik, gizarte osoari bere politika eta jarduketei buruzko informazioa ematea, modu egia, egoki, koherente eta gardenean.
- Agintariekiko, babes-erakundeekiko eta, oro har, administrazio publikoekiko harremanak legezotasun-, leialtasun-, lankidetzaren eta gardentasun-printzipioen arabera planteatzea.
- Interes-gatazkako egoerak aldeztu aurretik saihestea, eta ez inplikatzeko beren zereginekin bateraezinez diren egoera, jardura edo interesetan, eta ez esku hartzea objektibotasunari eragin diezaiokkeen kausaren bat dagoen gaian.
- Gizartearen zuzendutako ekintza guztietan, zuzentasun- eta justizia-printzipioak sustatzea, gizartearen onura komuna bilatuz, bereziki talde zaugarrien kasuan.
- Komunikazio-estrategia egia eta iragarriak garatzea, gizartearen argi azalduz bere jardueraren izaera, egiten dituen lan zehatzak, bere gaitasun-esparrua eta bere izatearen zentzu eta ekarpen soziala.
- Barneko zein kanpoko organo eskudunei jakinaraztea iragarri egiten den edo arau-haustea ekartzen duen edozein ekintza edo omisio, horren berri badute.

Berrikuntza:

- Berrikuntza sustatzea jarduketaren printzipio zuzentzaileetako bat bezala
- Bitarteko teknologiko berritzaileenak izatea enpresa elkartuekin eta langile babestu eta atxikiekin, baita edozein erakunde edo entitatekin eta oro har gizartearekin ere, harremanak izateko eta komunikatzeko, betiere arau-mugak eta printzipio etikoak errespetatuz.
- Komunikaziorako eta informazio-trukerako sistema berritzaileak eta seguruak sustatzea, bere zereginen garapena arindu eta errazteko.
- Gobernantza Sistema etengabe hobetzean oinarritutako kudeaketa izatea.

5. GOBERNU- ETA PARTAIDETZA-ORGANOAK



Gobernu- eta partaidetza-organoak: indarrean dagoen araudiak definitzen ditu, eta Gobernantza Sistema sortu, mantendu eta betetzen dela zaindu behar dute:

1. Batzar Orokorra

Batzar Orokorra da mutuaren gobernu-organo gorena, eta Mutualiarekin elkartutako enpresaburuek parte hartzeko bide nagusia. Partaidetza hori langile atxikien eta mutuako langileen ordezkaritza ere zabaltzen da.

Batzar Orokorrean partaidetza informatua eta arduratsua sustatzeko, Zuzendaritza Batzordeak ahalik eta gardentasun eta zabalkunde handienarekin jakinaraziko ditu horretan parte hartzeko prozedurak eta bazkideen eskubideak gauzatzeko garapen-arauak, eta, zehazki, ordezkaritza eskuordetzeko eta boto-eskubidea erabiltzeko sistema.

Batzar Orokorrerako deialdia zenbait iragarki-motaren bidez egiten da, enpresaburu elkartuen legezkotasun-, irisgarritasun-, gardentasun- eta partaidetza-printzipioak koordinatzen saiatuz, eta, ikusmen-mugak badituzte, deialdiaren iragarkia braille sisteman bidaltzeko eska dezakete.

2. Batzar Nagusia eta hartako batzordeak

2.1. Zuzendaritza Batzordea

Zuzendaritza Batzordea da mutuaren zuzeneko gobernu dagokion kide anitzeko organoa. Zuzendaritza Batzordeari dagozkio Mutua administratu eta ordezkatzeko ahalmen eta gaitasun handienak.

Zuzendaritza Batzordearen jardueraren erdigunean daude politikak, erregelamenduak eta barne-arauak onestea, Mutualiaren plan eta helburu estrategikoak onestea eta ikuskatzea, eta antolamendu-eredua definitzea.

Ikuskapen-zeregin hori betetzeko, Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Exekutiboari eta hark eskuordetutako beste aholku-batzorde tekniko batzuei lagunduko die. Batzordeek hartzen dituzten erabaki guztiak ikusi behar ditu Zuzendaritza Batzordeak, eta berretsi, hala badagokio.

Zuzendaritza Batzordeak, bere eginkizunak betetzean, interes soziala bilatzen du; xede-batasunez eta irizpi-deindependentziaz jarduten du, eta tratu bera ematen die baldintza berberetan dauden bazkide guztiei.

Osaeran, aintzat hartzen da ordezkari itzura orekatuaren printzipioa, bai Zuzendaritza Batzordeko kide diren enpresa elkartuen kasuan (txikiak, ertainak edo handiak, langile-kopuruaren arabera), bai enpresa horien ordezkari diren gizon eta emakumeen artean, aplikatu beharreko araudian eta erakundearen estatutueta aurreikusitakoarekin bat.

Bere antolamendu eta funtzionamendurako, aplikatzekoa den araudian eta erakundearen estatutueta ezarritakoaz gainera, Zuzendaritza Batzordea eta hartako batzordeak berezko barne-erregelamenduek arautzen dituzte. Haietan, besteak beste, honako alderdi hauek ezartzen dira:

- Zuzendaritza Batzordearen eta hartako batzordeen osaera, eta kideak eta ordezkariak hautatzeko eta kargutik kentzeko arauak.
- karguak,
- interes-gatazketan jarduteko arauak,
- bilerak eta
- Zuzendaritza Batzordearen eta hartako batzordeen bileretara joateagatiko konpentsazioak.

Egiaztatuko da ez dagoela araudian ezarritako bateraezintasunik, debekurik eta eskumen-gatazkaren edo interes-gatazkaren kausarik, ez kideen hautaketan, ez haien ordezkarien hautaketan, ezta bi horiek hautatzeko prozeduretan ere, inolako bereizkeriarik eragin dezakeen joera inpliziturik ez dagoela, eta, bereziki, Zuzendaritza Batzordeko kideen emakumezko ordezkariak aukeratzea oztopatzen duen joerarik ez dagoela.

Mutualiak Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzeko planak ditu, baita hartako karguen ondorengotzarako planak ere. Kideetako batzuk nahitaez berritu behar dira, eta karguak pixkanaka eta modu ordenatuan bete daitezzen saiatu behar da. Horrez gain, agintaldia betetzeagatik, ordezkarien adinagatik eta karguen eta kideen ordezkarien adinagatik aurreikusitako lanpostu hutsei aurrea hartu behar zaie. Gainera, Zuzendaritza Batzordeak lehendakariarentzako Ondorengotza Plan bat onartu du. Plan hori aplikatuko da kargua utzi nahi duela aldez aurretik jakinarazten duenean, edo ezustean eta luzaroan kargua utzi behar duenean.

Zuzendaritza Batzordeko lehendakariaren karguak, eta lehendakariorde eta idazkariaren karguek, unean uneko absentzian, beren karguetan jardutean ordezkaria ditzakeen pertsona bat dute, erakundearen estatutuetan eta politika honetan ezarritakoaren arabera.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ezagutzak eguneratu behar izanez gero, Mutualiak haientzako informazio-/prestatzuntza-ekintza espezifikoak ezartzen ditu, modu horretan gobernu-organo horren profesionalizazio-, dibertsifikazio- eta kualifikazio-beharrari erantzuteko.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak gune elektroniko bat dute, beren zereginetan jardutea eta informaziorako eskubidea erabiltzea errazten duena. Gune elektroniko horretan, beren bilerak eta komisioenak prestatzeko behar den informazioa ematen da, gai-zerrendaren arabera, baita egindako bileren aktak ere.

Zuzendaritza Batzordeak urtero ebaluatzen du bere funtzionamendua eta lanen kalitatea, zereginetan jardutea eta batzordeen funtzionamendua. Ondorio horietarako, Zuzendaritza Batzordeak Barne Auditoretzako Batzordearen laguntza du, baita Gizarte Segurantzako Kontu-hartzailetza Nagusiaren urteko auditoretza-txostenak, kontuen kanpo-auditoretzak eta erakundean ezarritako kudeaketa-sistemak ere.

2.1.1 Zuzendaritza Batzordeko kideen betebeharrak

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak bete beharrekoak dituzte Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei aplikatzekoa zaien araudian, erakundearen estatutuetan eta Zuzendaritza Batzordearen eta hartako batzordeen antolamendu eta funtzionamenduko barne-erregelamenduetan ezartzen diren betebeharrak. Haien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Zuzendaritza Batzordeko kide eta ordezkari gisa bateraezintasunei, debekuei eta erantzukizunei buruzko araudia ezagutzeko eta zorrotasunez betetzeko betebeharra, baita interes-gatazkari buruzkoa ere. Halaber, eskatzen ahal zaizkien eginbideak izenpetu beharko dituzte.
- Administrazio arduratsua gauzatzeko betebeharra, Zuzendaritza Batzordearen eta haren batzordeen bilerak behar bezala prestatzeko eta haietara joateko betebeharra barne, eztabaidetan aktiboki parte hartuz, beren irizpideak erabakiak hartzen benetan lagun dezan. Eginbide horren barruan sartzen da, era berean, Mutualiaren barneko informazio-sisteman aurreikusitako kanalen bidez Mutuaren kudeaketan arau-haustea

edo irregulartasuna dakarren edozein ekintza edo omisioren berri ematea eta edozein arrisku-egoera zaintzea.

- Konfidentzialtasun-betebeharra, baita Zuzendaritza Batzordeko kide ordezkariaren eginkizunak utzi ondoren ere. Horren arabera, ez dute ezagutaraziko beren kargua betetzean eskuratu duten informazioa, deklaratu izan nahiz konfidentziala izan.
- Lehiarik ezaren betebeharra, kargua betetzen ari den bitartean. Aldi horretan ezin izango da Zuzendaritza Batzordeko, Kontrol eta Jarraipen Batzordeko, Prestazio Berezien Batzordeko edo Gizarte Segurantzarekin edo haren zentro mankomunatueta beste mutua laguntzaile batzuen zuzendaritza exekutiboko kide izan, ezta haien ordezkari ere.
- Pertsona berari ezin izango zaio aldi berean Zuzendaritza Batzordeko kargu bat baino gehiago eman, ez bere kabuz, ez beste enpresa elkartu batzuen ordezkari gisa, eta ezingo dira Batzordeko kide izan mutuarekin lan- edo zerbitzu-harremana duten pertsona edo enpresak, legeak onartutako kasuetan edo mutuako langileen ordezkarien kasuan izan ezik.
- Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak lehendakariari jakinarazi beharko dizkiote betetzen dituzten lanpostu guztiak eta beste sozietate edo erakunde batzuetan egiten duten jarduerak, eta, oro har, beren egoera profesionalean izandako edozein aldaketa, garrantzitsua izan daitekeena bateraezintasun eta debeku legalak betetzeko eta interes-gatazkak edo mutuaren kontrako interesak saihesteko orduan.
- Leialtasun-betebeharra; horren barruan sartzen dira erakundearen barneko informazio-sisteman aurreikusitako kanalen bidez interes-gatazkaren edozein egoera jakinarazteko betebeharra, eta mutuari Zuzendaritza Batzordeko kide gisa jarduteko garrantzitsua den edozein gertaera edo egoeraren berri emateko betebeharra, politika honetan jasotako betebeharrak ez betetzea edo ez betetzeko arriskua ekar badezake. Hor sartzen da, era berean, bateraezintasun-egoerarik ez sortzea, ezta mutuei aplikatu beharreko araudian ezarritako debeku-egoerarik ere (isilpeko informazioaren berri ematea barne), ondare-abantaila lortzeko eta, norberaren onurarako, hari lotutako pertsonak edo ordezkatzeko dituzten enpresak aprobetxatzeko.

Azkenik, Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak beren kargua Zuzendaritza Batzordearen esku utzi beharko dute, baldin eta estatutueta aurreikusitako gehieneko adina betetzen badute, bateraezintasuna badago, ez badira kargurako egokiak, kargua betetzeko gerora sortutako debekua badago eta aplikatu beharreko araudian eta erakundearen Gobernu Korporatiboko Sistemari ezarritako gainerako kasuak gertatzen badira.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak Kode Etikoa eta Mutualiaren jokabide profesionalari buruzko arau orokorretan ezarritako jokabide-arauak ere bete behar dituzte, bai eta beste edozein barne-arautan ezarritakoak ere, haren irismenaren barruan geratzen badira.

Haienezat erabakitzen diren betebeharrak ordezkatzeko dituzten pertsona fisiko edo juridikoei ere eskatuko zaizkie.

2.1.2 Batzar Orokorraren eta hartako batzordeen bilerak

Bere zereginak eraginkortasunez betetzeko, Zuzendaritza Batzordea eta hartako batzordeak modu arruntean eta presentzialki bilduko dira, baina, justifikatutako kasuetan, telematikoki ere egin ahal izango dira bilerak, eta haietan parte hartu, aplikatzekoa den araudian, erakundearen estatutuetan eta haren antolamendu eta funtzionamenduko barne-araudietan ezarritakoaren arabera. Horretarako behar diren baliabide teknologikoak izango dira.

2.1.3 Zuzendaritza Batzordeko karguak

Lehendakaria

Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak mutuaren eta haren gobernu-organoen ordezkaritza eta sinadura gauzatzen ditu, eztabaidak zuzentzen ditu, Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu egokia zaintzen du eta kide guztiek bileretan eta eztabaidetan parte hartzea sustatzen du. Halaber, Batzar Orokorraren, Zuzendaritza Batzordearen batzordeen eta Kontrol eta Jarraipen Batzordearen buru da, eta, hala badagokio, bere eskumenen esparruan dauden gaiei buruzko erabaki-proposamenak egiten ditu.

Era berean, Zuzendaritza Batzordeari proposatzen dio, hark onar dezan, zuzendari kudeatzailearen izendapena eta kargutik kentzea, baita haren ordainsariak ere, gobernu-organismo honentzat indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen ordainsari-mugak kontuan hartuta; baita erakundearen zeregin exekutiboak dituzten gainerako goi-karguen ordainsariak ere, eta Barne Auditoretzako zuzendariaren izendapena, kargutik kentzea eta ordainsariak. Gainera, aplikatzekoak diren arauen eta erakundearen estatutuen arabera dagozkion gainerako zereginak beteko ditu.

1., 2. eta 3. lehendakariordeak

Lehendakariorde bakoitzak lehendakaria ordeztuko du aldi baterako, dagokion hurrenkeran, bere ahalmen eta erantzukizun guztiekin, kargua hutsik dagoenean, titularra kanpoan denean, gaixorik dagoenean edo ezin duenean, baita aurreko ordenako lehendakariordeetako edozein ere, Batzar Orokorreko eta Zuzendaritza Batzordeko edozein batzordetako lehendakariorde barne, aldi baterako botere-hutsunearen arriskua saihestuz. Gainera, erakundearen estatutuen arabera berezkoak zaizkion gainerako zereginak beteko ditu.

Idazkaria

Zuzendaritza Batzordeko idazkariari dagokio Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren jardueren legezkotasun formala eta materiala zaintzea, eta beraren eginkizunen artean egongo da haren eta Batzar Orokorraren bileretako aktak idaztea. Gainera, erakundearen estatutuen arabera dagozkion gainerako zereginak beteko dituzte.

Idazkariordea

Idazkaria ordeztuko du, aldi baterako, bere ahalmen eta erantzukizun guztiekin, kargua hutsik dagoenean, idazkaria kanpoan edo gaixorik dagoenean edo ezinduta dagoenean, Batzar Orokorreko idazkaritza barne.

Batzordekideak

Lehendakaria, 3. lehendakariordea eta idazkariordea ordezkatzeko dituzte kargua hutsik dagoenean, haiek ez daudenean edo gaixorik daudenean eta Zuzendaritza Batzordeak zehazten duen moduan. Era berean, Zuzendaritza Batzordeak bere erabakiak betetzeko edo mutuaren funtzionamendurako agintzen dizkion eginkizun bereziak beteko dituzte.

2.2 Zuzendaritza Batzordeko batzordeak

Zuzendaritza Batzordeak Batzorde Exekutibo bat eta hiru aholkularitza-batzorde ditu: Auditoretza Batzordea, Ordainsarien Batzordea eta Batzorde Etikoa. Haien osaera, eskumenak eta funtzionamendua Zuzendaritza Batzordeak berak onartutako erregelamenduetan arautzen dira. Erakundearen estatutuetan aurreikusitakoarekin bat, Zuzendaritza Batzordeak mutuaren gobernurako beharrezko deritzen batzordeak sortu ahalko ditu.

Zuzendaritza Batzordearen eskuordetzearen bidez jarduten du Batzorde Exekutiboak, eta zeregin berdinak ditu, berariaz eskuordetu ezin direnak izan ezik. Hamar kide baino gutxiago ditu, eta Zuzendaritza Batzordeak berretsi behar ditu haren erabakiak, gainerako komisioen kasuan bezalaxe.

2,3. Zuzendari kudeatzailea

Bere eskumenen artean, Zuzendaritza Batzordeak zuzendari kudeatzaile bat izendatzen du, arrazoi profesionalak eta teknikoak zorrozki kontuan hartuta, mutuaren zuzendaritza exekutiboaren eta haren helburu orokorren garapenaren ardura izan dezan. Horretarako, Zuzendaritza Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen ahalmen zirkunstantzialak edo iraunkorrak ematen dizkio, eta haren ordainsariak finkatzen ditu, araudiaren eta muga aplikagarrien arabera; beraren erabakiz, halaber, postutik ken daiteke.

Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkarien hautaketan bezala, zainduko da ez dela gertatzen inolako bateraezintasunik, debekurik eta lehia- edo interes-gatazkako arrazoirik, mutuei eta estatutuei aplikatu beharreko araudian ezarri bezala, eta ez dela izaten inolako bereizkeriarik ekar dezakeen joera inpliziturik, eta, bereziki, emakumeak hautatzea ez oztopatzea.

2,4. Kontrol eta Jarraipen Batzordea

Mutualia, Gizarte Segurantzarekiko elkarlanaren kudeaketaren gizarte-eragileen kontrol eta jarraipenerako partaidetza-organo den aldetik, legezketasun-, gardentasun- eta berdintasun-printzipioek arautzen dute, bai Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak bere eskumenak, osaera, funtzionamendua, bateraezintasunak eta konpentsazio-printzipioak finkatzen dituelako, bai kideak haren bileretara joaten direlako, bai mutuako eta elkartutako enpresetako pertsona babestuen eta atxikien ordezkari-tza paritarioa dagoelako.

Kontrol eta Jarraipen Batzordeko kideak ordezkari-tza handiena duten sindikatuek eta enpresaburuek izendatzen dituzte, baita Mutualiaren jarduera-eremuko langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkari-tza batek ere.

Emakume eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa aplikatzekoa izango da kideen ordezkari-tzaren osaeran, indarreko araudian eta erakundearen estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, ordezkari eta karguak izendatzeko eta berritzeko orduan.

Batzordeko lehendakaria Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria bera da, eta bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke. Ohiko bilkurak hiru hilean behin egiten dira, eta ezohikoak, berriz, lehendakariak egoki irizten dion guztietan edo kideen herenek eskatzen dutenean.

2,5. Prestazio Berezien Batzordea

Gizarte-laguntzako prestazioak emateko eskumena duen organoa da. Prestazio horiek nahierara eman ahal izango zaizkie, mutuak ezarritako Gizarte Laguntzako Erreserbako funtsen kontura, pertsona onuradunei eta haien eskubidedunei, baldin eta, lan-istripu bat edo gaixotasun profesional bat izatearen ondorioz, premia-egoeran edo egoera berezietan badaude.

Aurreko batzordearen kasuan bezalaxe, legezketasunaren, gardentasunaren, berdintasunaren eta osaeran presentzia orekatua izatearen printzipioek arautzen dute, arrazoi berberengatik. Baina, gainera, prestazio publikoak aitortzeko dituen eskumenak dituenek, aplikatzekoa den araudian eta erakundearen estatutuetan ezarrita daudenak, Prestazio Berezien Batzordeak aipatutako erreserbako funtsak kudeatzen ditu, kontuan hartuta urteko aurrekontuekin bat etortzeko printzipioak eta hurrengo ekitaldiko baliabideak arriskuan ez jartzea, efizientzia, eraginkortasuna eta, bereziki, premia-egoerei erantzuten dieten gizarte-laguntzak ematea, kasu bakoitzak behar duen arintasunarekin eta tratu- eta irizpide-berdintasunarekin, aurretiaz familia-unitate bakoitzaren banakako azterketa eginda.

Prestazio Berezien Batzordeko kideak ordezkaritza handiena duten erakunde sindikalek izendatzen dituzte, aplikatu beharreko araudian eta erakundearen estatutuetan aurreikusitakoaren arabera, baita Mutualiaren jarduera-eremuan langile autonomoen elkarte profesionalen ordezkaritza batek ere; enpresa elkartuen ordezkariak, berriz, Zuzendaritza Batzordeak izendatzen ditu. Kargu guztiak (lehendakaria, lehendakariordea edo idazkaria), lehendakaria barne, batzordeak berak hautatzen ditu bere kideen artean, eta bi urtean behin berritzen dira.

2.6.- Bileretara joateagatiko konpentsazioa.

Legezkotasunaren, doakotasunaren, berdintasunaren, gardentasunaren eta bildutako Gizarte Segurantzako kuoten bolumenaren arabera proportzionaltasunaren printzipioek arautzen dute konpentsazio hori. Izan ere, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak eta hura garatzen duten arauak jasotzen dute Zuzendaritza Batzordeko kidearen izaera doakoa izango dela. Hala ere, mutuak kalte-ordainak eta konpentsazioak eman ahal izango ditu bileretara joateagatik, bai eta lehendakari-kargua betetzen duen pertsonari ere, hala badagokio, kargu horri dagozkion berariazko zereginengatik, hori guztia, aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauetan xedatutakoaren arabera.

Gobernu-organo horren bileretara joaten diren Zuzendaritza Batzordeko kideen ordezkariak eta Zuzendaritza Batzordeko batzordeetara joaten direnek soilik dute eskubidea Zuzendaritza Batzordeak urte bakoitzeko lehenengo bileran adostutako gastuen konpentsazioaren zenbatekoa jasotzeko, pertsona eta bilera bakoitzeko zenbatekoa ministerio eskudunak arauetan ezarritakoa gainditu gabe. Gehieneko zenbateko hori homogeneizatuta dago sektoreko mutua guztientzat, bakoitzak guztira eskuratzen dituen kuota-tarteen arabera, eta berdin banakatuta, bileretara joaten diren kideen ordezkari guztien artean.

2.7.- Kontrapisuen sistema

Gobernu Korporatiboko Sistemak behar diren neurriak aurreikusten ditu Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak, Zuzendaritza Batzordeko Batzorde Exekutiboak eta Zuzendaritza Batzordeko beste batzordeek kontrapisu egokien pean ez dagoen erabaki-ahalmenik ez dutela ziurtatzeko, baita Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria eta komisio guztiak Zuzendaritza Batzordearen ikuskaritzapean daudela bermatzeko ere.

Illo horretan, Zuzendaritza Batzordeak kide independente guztiak ditu, baita kide ez-exekutiboek osatutako aholkularitza-batzordeak ere, Zuzendaritza Batzordeak edozein batzorderen erabakiak berretsi behar dituen heinean.

Urtero, Zuzendaritza Batzordearen funtzionamenduaren ebaluazioaren parte gisa, kontrapisuen sistema hori modu eraginkorrean aplikatzen dela egiaztatzen da, eta ikusten da ea Zuzendaritza Batzordeko batzordeen erabaki guztiak Zuzendaritza Batzordeak berretsi al dituen.

6. GARAPENA

Gobernu korporatiboaren politika orokor hau Zuzendaritza Batzordeak onesten du, zuzendari kudeatzaileak proposatuta, eta Batzar Orokorrak berresten du.

7. ZABALKUNDEA

Politika hau behartutako pertsona eta organo guztien artean jakinarazi eta zabalduko da.

Interpretazioari eta aplikazioari buruzko zalantzarik izanez gero, zuzendari kudeatzaileari eta Zuzendaritza Batzordeari galdetu behar zaie, ordena horretan.

8. MUTUALIAREN POLITIKA ETA BARNE-ARAU KORPORATIBOEN SISTEMATIKA ETA ONESPENA

Mutualiaren politika guztiak eta gainerako barne-arau korporatiboak honen mende geratzen dira, eta ezin dute ezertan kontraesan hemen xedatutakoa. Gainera, beste politika batzuetan xedatuta ez dagoenerako, honetan ezarritakoari jarraituko zaio, horiek guztiak interpretatzeko ere balioko baitu.

Mutualiaren Gobernu Korporatibo Egokiaren Politika hau Batzar Nagusiak berrikusi eta onartuko du, aurretik Zuzendaritza Batzordeak proposamena egin ondoren.

Mutualiaren gainerako barne-politika eta -arauetarako, Politika honen ERANSKINEAN ezartzen dira sistematizazio-esparrua eta haren sorrera, onespena eta hedapena. Aipatutako ERANSKINAREN berrikuspena Zuzendaritza Batzordeak onetsi ahal izango du kasu bakoitzean, aplikatu beharreko araudiak edo erakundearen antolakuntzako edo gobernantzako aldaketek hala justifikatzen dutenean.

9. KONTROLA

Bere erregelamenduaren arabera, Mutualiako Zuzendaritza Batzordeko Batzorde Etikoaren eskumenen artean dago Gobernu Korporatiboko Politika Orokorra eta Kode Etikoa proposatzea, ikuskatzea eta berrikustea aldian behin, arrisku moralei, dilema etikoei eta erakundearen kultura etikoari dagokienez, eta Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, bere eskumeneko arloetan, aldaketak egitea eta eguneratzea.

Halaber, Mutualiak, politika honetan ezarritako printzipio orokorren betetze-mailaren jarraipena eta kontrola egiteko, bere interes-talde guztien eskura jarri du "informaziorako barne-kanala", BETETZE BATZORDEAK kudeatua. Hori ekimen- eta kontrol-ahalmen autonomoak dituen kide anitzeko organoa da, Mutualiako barneko informazio-sistemaren arduraduna, eta jasotzen dituen informazioak kudeatu eta aztertzen ditu, bidaltzeko, eta pertsona eta organo eskudunek dagozkien neurriak eta erabakiak hartzen dituzte, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

10. Onespen-taula eta berrikuspenak.

Data	Onespena
2019/07/09	Edizioa: Onetsia, Zuzendaritza Batzordearen 1. erabakia
2021/07/06 2021/07/16	BER. 1: Onetsia, Zuzendaritza Batzordearen erabakia Batzar Oroko- rraren erabakia 2.1 Zuzendaritza Batzordea Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzeko planen existentzia ez zehazteko, Zuzendaritza Batzordearen erregelamenduan araututa dagoen heinean. Testu berria: “Mutualiak araudi-aurreikuspenak ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak berritzeari eta Zuzendaritza Batzordeko karguen ondorengotzari buruz.” 2.1.2.- Zuzendaritza Batzordearen bilerak Bilera presentzialak eta urrutiko bilerak ez aditzera emateko, estatutuetan eta Zuzendaritza Batzordearen erregelamenduan xedatutakoari jarraituz arautuko dira. Testu berria: “Bere zereginak eraginkortasunez betetzeko, Zuzendaritza Batzordearen bilerak estatutuetan eta Zuzendaritza Batzordearen erregelamenduan aurreikusi bezala egingo dira.”
2021/12/17	2. BER. Zuzendaritza Batzordearen erabakia Hurbiltasun-balioaren printzipio oroko- rrak aldatzea
2022/07/15	3 BER. Ohiko Batzar Nagusiaren erabakia, 2022/07/15ekoa
2023/07/14	4. BER. Zuzendaritza Batzordearen 2023/05/26ko erabakia, Ohiko Batzar Orokorrak 2023/07/14an berretsia Berrikuspen eta eguneratze orokorra, azken lege- eta estatutu-aldaketetara egokitzeko.
2024/07/19	5.BER. Zuzendaritza Batzordearen 2024/05/31ko erabakia, Ohiko Batzar Orokorrak 2024/07/19an berretsia 8. atala aldatzea eta eranskina sortzea: erakundearen politikak eta gainerako bar- ne-arau korporatiboak sistematizatzeko eta arautzeko, baita haiek onartzeko eta berrikusteko eskumena duten organoenak ere.

ERANSKINA

1. XEDEA

ERANSKIN honen helburua da sistematizazio-esparrua arautzea, bai eta Mutualian aplikatzekoak diren politika, erregelamendu, prozedura eta barne-jarraibide korporatiboak sortu, onartu eta hedatzeko esparrua ere.

2. BETETZEN DEN ARAUDIA

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 87. eta 88. artikulua (urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretua):

Zuzendaritza Batzordea da mutuaren zuzeneko gobernu dagokion kide anitzeko organoa. Zuzendari kudeatzailea mutuaren zuzendari exekutiboa da, eta haren helburu orokorrak eta erakundearen ohiko zuzendaritza ditu bere kargu. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak eta presidenteak kasuan kasu ezarritako irizpideak eta jarraibideak betetzea dagokio.

Mutualiaren estatutuen 23. artikulua.

Zuzendaritza Batzordea organo kolegiatua da, presidenteak ordezkaturia, eta hari dagozkio mutuaren zuzeneko eta berehalako gobernu, haren erabateko ordezkartza, eta haren ondare- eta gizarte-interesak defendatzeko behar diren zuzendaritza-, administrazio-, xedatze- eta betearazpen-ahalmen guztiak, aplikatzekoa den araudian eta erakundearen estatutuetan ezarritako mugak soilik dituela. Adierazteko eta ez mugatzeko, Zuzendaritza Batzordearen eskumenak honako hauek dira: a.- Mutuaren zuzendaritza, antolakuntza eta administrazioa, horretarako behar diren botere eta ahalmen guztiekin. i.- Hartu beharreko erabakiak hartzea Mutuak berak hobeto funtzionatu dezan.

Mutualiaren estatutuen 28. artikulua.

Zuzendari kudeatzaileak du mutualitatearen zuzendaritza exekutiboa, eta hari dagokio Erakundearen helburu orokorrak eta ohiko zuzendaritza garatzea, Zuzendaritza Batzordeak eta hango presidenteak, egokia denean, helaraziko dizkioten irizpide eta jarraibideei lotuta egoteari kalterik eragin gabe; Zuzendaritza Batzordeko presidenteari mutualitatearen kudeaketaren berri emango dio. Beste eskumen batzuen artean, honakoak izango ditu: a) Mutualitatearen zentro, jarduera eta zerbitzu guztiak antolatzea, administratzea eta zuzentzea, baita bertako langile guztiak ere.

Gobernu korporatibo egokirako politika orokorra.

Mutualia Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen 2 zenbakiko Mutuaren Zuzendaritza Batzordeak eskumena du mutuak hobeto funtziona dezan beharrezkoak diren xedapenak hartzeko (Estatutuen 23.i artikulua); besteak beste, ZINTZOTASUN ETA GOBERNU KORPORATIBO EGOKIRAKO SISTEMA (aurrerantzean, Gobernantza) onetsi, ebaluatu eta etengabe berrikusteko eskumena, eta, bereziki, GOI-MAILAKO barne-erakundeak eta politika korporatiboak onestekoa, zeinek biltzen baitituzte Mutualiak bere jarduerak garatzean dituen jarraibideak.

31 bis. art., 5.2 apartatua, ZIGOR KODEKO 2.1 apartatuari dagokionez:

Delituak prebenitzeko edo delituak egiteko arriskua nabarmen murrizteko zaintza- eta kontrol-neurri egokiak barne hartzen dituzten antolaketa- eta kudeaketa-ereduek ezarriko dituzte pertsona juridikoaren borondatea eratzeko, erabakiak hartzeko eta gauzatzeko prozesua zehazten duten protokoloak edo prozedurak.

3. APLIKAZIO-ESPARRUA

Mutualia erakunde guztia, haren jardura eta haren egitura fisikoa (gobernu- eta partaidetza-organoak, zuzendariak eta langileak) dira politika honen aplikazio-eremua.

4. GARAPENA

Mutualiaren barne-arau korporatiboak eranskin honen azken KOADROAN zehazten denaren arabera sistematizatzen, lantzen eta onartzen eta zabaltzenen dira.

5. HEDAPENA ETA INTERPRETAZIOA

Behartuta dauden subjektu guztien artean komunikatu eta zabalduko da: gobernu-organoak eta Mutualiako langileak.

Haren interpretazioari eta aplikazioari dagokionez sortzen diren zalantzak zuzendari kudeatzaileari kontsultatu behar zaizkio, eta hark erabakiko du Zuzendaritza Batzordera bideratzekoa den.

6. ONARPENA, BERRIKUSPENA ETA KONTROLA

Eranskin hau ONARTZEA eta BERRIKUSTEA Mutualiako Zuzendaritza Batzordeari dagokio, Gobernu Korporatibo Egokirako Politika Orokor honen 8. artikuluan aurreikusitakoa betez. Hala ere, Zuzendaritza Batzordeak onartzeko eta berrikusteko eskumena duten politiken kasuan, zuzendari kudeatzaileak testuaren egokitzapenak baimendu ahal izango ditu une bakoitzean aplikatu beharreko legeria aipatzeko (ez irizpideenak edo garapenarenak).

ARAU-MOTA	PRESTATZEA	ONARTZEA	ZABALKUNDEA
Erakundearen ESTATUTUAK	Zuzendaritza Batzordea	Batzar OROKORRA eta MINISTERIOKO Zuzendaritza eta Tutoretza Organoa	Erakunde osoari eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
GOBERNU KORPORATIBO EGOKIRAKO POLITIKA	Zuzendaritza Batzordea	Batzar OROKORRA (Eranskin honetako aldaketak izan ezik, Zuzendaritza Batzordeari baitagokio horiek onartzea)	Erakunde osoari eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
KODE ETIKOA	Zuzendari kudeatzaileria	Zuzendaritza Batzordea	Erakunde osoari eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
OKABIDE-ARAU OROKOR PROFESIONALAK	Zuzendari kudeatzaileria	Zuzendaritza Batzordea	Erakunde osoari
BESTE ADIERAZPEN BATZUK	Zuzendari kudeatzaileria	Zuzendaritza Batzordea (Zuzendaritza Batzordeak berak zuzendari kudeatzaileari eskuordetzen dizkionak izan ezik)	Erakunde osoari
HIZKEREN ETA PORTAEREN fitxak	Zuzendari kudeatzaileria	Zuzendari kudeatzailea	Erakunde osoari
Zuzendaritza Batzordearen antolaketa eta funtzionamendurako barne-Erregelamendua	Zuzendaritza Batzordea	Batzar Orokorra	Zuzendaritza Batzordeari
ZUZENDARITZA BATZORDEAREN BATZORDE DELEGATUEN antolaketa eta funtzionamendurako barne-ERREGELAMENDUA	Zuzendari kudeatzaileria	Zuzendaritza Batzordea	Zuzendaritza Batzordeari
BESTE ORGANO BATZUEN ETA ZUZENDARITZA BATZORDEAREN MENPEKO BATZORDEEN antolaketa eta funtzionamendurako barne-ERREGELAMENDUA	Organoa edo batzordea	Zuzendaritza Batzordea	Zuzendaritza Batzordeari eta organoari edo batzordeari.

ARAU-MOTA	PRESTATZEA	ONARTZEA	ZABALKUNDEA
ZUZENDARI KUDEATZAILEAREN MENEKO ORGANO ETA BATZORDEEN antolaketa eta funtzionamendurako barne-ERREGELAMENDUA (Batzorde Betea-razlea barne)	Organoa edo batzordea	Zuzendari kudeatzailea	Organoari edo batzordeari
ADIERAZPEN-ELEMENTUAK (xedea, misioa, ikuspegia, balioak, beste adierazpen eta konpromiso korporatibo batzuk)	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea (Zuzendaritza Batzordeak berak zuzendari kudeatzaileari eskuordetzen dizkionak izan ezik)	Erakunde osoari eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
PLAN ESTRATEGIKOAK ETA ORGANIGRAMA	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea	Erakunde osoari edo, kasuan kasu, organo eskuduneiei.
EKITALDIKO MEMORIAK: KONTU-FORMULAZIOA ETA GEHIGARRIA, ETA JASANGARRITASUNEKOAK	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea	Erakunde eskudunei, eta, hala badagokio, erakunde osoari eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
GOBERNU KORPORATIBOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea	Organo eskudunei eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
FINANTZA-INBERTSIOEI BURUZKO URTEKO TXOSTENA	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea	Organo eskudunei eta interes-taldeei (webgune korporatiboan ere argitaratuz).
	Zuzendari kudeatzailea	Zuzendaritza Batzordea (aplikatu beharreko legeria aipatzeko testuan egiten diren aldaketak formalak izan ezik; horretarako, zuzendari gerenteak izango du eskumena).	Erakunde osoari

ARAU-MOTA	PRESTATZEA	ONARTZEA	ZABALKUNDEA
GOBERNANTZA SISTEMAREN ARRISKUEN GAINEKO POLITIKA KORPORATIBOAK	Arloak + Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako Zuzendaritza	Zuzendari kudeatzailea	Erakunde osoari eta/edo, kasuan kasu, eragindako arloei
KUDEAKETAKO GOBERNANTZA-SISTEMAREN POLITIKA ZEHARKAKOAK	Arloak + Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako Zuzendaritza	Zuzendari kudeatzailea	Erakunde osoari eta/edo, kasuan kasu, eragindako arloei
ARLOEN KUDEAKETAKO GOBERNANTZA-SISTEMAREN POLITIKAK	Arloak + Antolamenduko eta Arriskuen Kudeaketako Zuzendaritza	Zuzendari kudeatzailea	Eragindako arloei
Gainerako POLITIKAK, ESKULIBURUAK/ PROZEDURAK/PROTOKOLOAK/ JA-RRAIBIDEAK/PLANAK/ (kudeaketakoak, ez estrategikoak, ez identitatekoak, ez zeharkakoak) Batzordeak/Arloak/	Batzordeak/Arloak/barne-organo eskudunak	Zuzendari kudeatzailea, edo, kasuan kasu, eskumena duen batzordea edo barne-organoa edo arloko zuzendaritza.	Eragindako arloei



mutualia
